



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

AZKOITIKO UDALEKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

VI. PLANGINTZALDIA (2018-2022)

Azkoitia, 2018ko urria /azaroa



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. V. PLANGINTZALDIAREN (2013-2017) BALORAZIOA	4
3. VI. PLANGINTZALDIKO (2018-2022) PLANA	13

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: V. plangintzaldiaren (2013-2017) balorazioa.

II. ERANSKINA: Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiaren VI. titulua Hizkuntza Normalizazioarena (Udaleko hizkuntza irizpideak).

III. ERANSKINA: Lanpostu zerrenda (GAO, 94 zk., 2017ko maiatzaren 18a) eta langileen hizkuntza gaitasuna.

IV. ERANSKINA: HIZKETA - Hizkuntza Kudeaketarako Aplikazioaren araberako Plan Estrategikoaren txostena.



1. SARRERA

Udalari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua betetzea dagokio. Dekretu horrek Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen du.

Udaleko erabilera planari buruz, Dekretuko artikulua aipagarrienak diotena laburtuta:

- 4. art.: udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta garatu behar du.
- 5. art.: planak burutzeko 5 urteko iraupena duten plangintzaldiak ezarri dira. (I. plangintza 1990 jarri zen martxan eta 2018ko urtarrilaren 1ean hasi zen VI.ena).
- 11. art.: udal eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrez bete beharreko indizeak dio lanpostu zerrendatik zenbatek duten derrigorra hizkuntza eskakizuna betetzea eta plangintzaldi bakoitzaren indizea finkatzeko, plangintzaldi hasieran indarrean dauden Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliz honako eragiketa egingo da: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$.
- 17. art.: derrigortasun indizearen arabera gutxieneko helburuak ezarri dira.
- 18. art.: gutxieneko helburuak lortzeko udalak erabiliko duen hizkuntza politika eta jarraibideak planean jasoko dira.
- 19. art.: plana plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean onartuko da, aurretik proposamena Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidaliko da eta horrek aginduzko txostena hilabete baino lehen emango du.

Aurreko Dekretuaz gain, udalak Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiaren hizkuntza normalizazioari dagokion VI. tituluan jasotakoa ere bete behar du (GAO, 138 zk., 2005eko uztailaren 21a).

Udalbatzak 2003ko urriaren 30ean onartu zuen udaleko lehen euskara plana III. plangintzaldian. 1998tik udalak hainbat lan egin zituen, adibidez, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak egokitu, langileei prestakuntza eskaini lanpostuei zegokien perfilak lortzeko, adinarengatik perfila ateratzeko salbuespen espedienteak bideratu edo planaren bideragarritasun txostena egin. Plenoak onartu zuen azken erabilera plana izan da V. plangintzaldiari zegokiona 2013ko azaroaren 28an. Plan hori 2017ko abenduaren 31n iraungi zen. Egun 2018ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2022ko abenduaren 31n amaituko den VI. plangintzaldia dago indarrean.

Erabilera plana da udalak jarraituko duen hizkuntza politika jasotzen duen plangintza. Hau da, udala euskaraz funtzionatzeko egingo dituen ekintzen bilduma.



2. V. PLANGINTZALDIAREN (2013-2017) BALORAZIOA

86/1997 Dekretua jarraituz, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak plangintzaldi bakoitzean bi ebaluazio egin behar ditu: tartekoa eta bukaerakoa. Orain arte sailordetzak egin ditu ebaluazioak galdetegia betetzea eskatuz, erakunde bakoitzean euskara planeko arduradunari. V. plangintzaldiko amaierako ebaluazioan, berriz, Siadeco Ikerketa Elkartearen eskutik erabaki du planaren arduradunari ez ezik, langileei ere euskararen erabilera eta presentziari buruzko inkesta egitea. Udalak plangintzaldi bukaerako ebaluzioa egiteko sailordetzak eskainitako galdetegiak erabili ditu.

Ebaluazioa bi ardatzetan egituratu da: zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza. Aipatutako Dekretuaren arabera, zerbitzu hizkuntza da lanpostuaren zereginak betetzerakoan, herritarrekin ahoz eta idatziz erabiltzen den hizkuntza. Lan hizkuntza, aldiz, lanpostuari dagozkion zereginak betetzerakoan, erabiltzen dena.

Zerbitzu hizkuntzan udala nola ageri den jendaurrean aztertu da. Horretarako, udalaren irudia eta herritarreko harremanak aztertu dira. Lan hizkuntzan, aldiz, lan jardunari erreparatu zaio: barneko erabilerari, beste erakundekiko eta enpresekiko harremanari, lan tresnei, sorkuntzari... Adierazle guztiak taula bakarrean bildu dira (I. Eranskina).

Euskara teknikariak udaleko planeko arduradun moduan zegoen galdetegia 2017ko iraila hasieran bete zuen. Langileek, berriz, 2018ko udaberrian. Kasu bietan, galdetegiak paperan erantzun eta gero, teknikariak sartu ditu sailordetzak horretarako berriaz sortutako aplikazioan. Galdetegia egiteko 59 langile zeuden deituta eta 45 erantzun jaso dira. Desfasearen arrazoiak honakoak:

- Idazkari berriak udala ez ezagutzea eta gutxira amatasun baja hartu izana.
- Udaltzaingoko 7 lanpostu hilabeteotan bete dituzten aldi baterako langileei ez zaie inkestarik pasa, lanpostu horietan joan-etorri handia izan delako eta udala ez ezagutzeagatik.
- Bajan 3 langile izatea. Horietatik bat udaltzaina.
- Galdetegia ez erantzutea 3 langilek.

Galdetegia erantzun duten langileen batez besteko adina 45 urte da. %51 emakumeak dira eta %49a, berriz, gizonak.

Jarraian 2013-2017 planaren ebaluazioa eta 2018-2022 planerako abipuntua:

2.1. Zerbitzu-hizkuntza

Udalaren irudia eta herritarreko harremanak aztertu dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.1.1. Irudia


Neurtutako aldagaia	% euskaraz	% ele bitan
Eraikinetako errotulazio orokorra	--	100
Irudi korporatibokoa: gutun azalak, bisita txartelak...	--	100
Iragarkiak eta publizitea	--	100
Papereko argitalpenak	85	15
Jendaurreko ekitaldietan ahozko erabilera	90,6	9,4
Webgunea	25	75

Udalaren irudian gaztelera hutsezko elementurik ez dago.

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

Udalak herritarrekin eta horiek udalarekin darabilten hizkuntza ahoz eta idatziz neurtu da. Ahozkoan telefono bidezko eta aurrez aurreko harremanak aztertu dira.

Herritarrekiko idatzizko harremanetako batez besteko hizkuntza erabilera




Herritarrei bidalitako idatzizko komunikazio ofizialetan, %19,10 gaztelaniaz da. Udalari herritarrek euskaraz aurkeztutako idatziei, gaztelera erantzun zaie %3,50etan.




AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Herritarrekiko ahozko harremanetako batez besteko hizkuntza erabilera



Udal langileen hasierako hizkuntza euskara da.

Elkarrizketak osotasunean hartuta, emaitzak




Herritarren eta udal langileen arteko ahozko lau elkarrizketetatik, hiru euskaraz dira eta euskaraz artatuak izan nahi duten herritarren eta udal langileen arteko elkarrizketen %99,10a euskaraz da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA


2.2. Lan hizkuntza

2.2.1. Idatzizko barne komunikazioa



Udalan idatzizko barne komunikazioa euskaraz da. Lan bileretarako dokumentazioa gazteleraz dago %6,70an eta idatzi ofizialak eta prozedura administratiboak %6,90a gazteleraz egiten dira.

2.2.2. Ahozko barne komunikazioa



Udaleko ahozko hizkuntza euskara da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.2.3. Baliabide informatikoak

Lanean ordenagailua darabilten langileek aplikazio informatikoak euskaraz dituzte. Horiek %64,30ean erabiltzen dute euskarazko bertsioa.


2.2.4. Laneko prestakuntza

Inkestatutako langileen %31k egin du azken hamabi hilabeteotan udalak antolatutako ikastaroren bat. Udalak eskainitako ikastaroak euskaraz egiteko aukera %40,40a izan da, eta langileek euskaraz jasotako formazioa %44,60 izan da.

2.2.5. Kanpo harremanak

Atal honetan aztertu dira udalak beste erakunde publikoekin eta enprekin dituen harremanak.

Erakunde publikoen arteko harremanak




Udalak beste erakundeetatik jasotako idatziak euskaraz edo elebitan dira, eta udalak bidalitakoak nagusiki euskaraz. Ahoz harremana euskaraz da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Enpresekiko harremanak




Udalak enpreseengandik jasotako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz dira, eta udalak bidalitako idatziak gehiengoan euskaraz bada ere, horien laurdena gaztelera da. Ahoz harremana euskaraz da. Baina, emaitza hori beste erakundeekin ahozko emaitzarekin alderatuz gero, jaitsiera 7,20 puntukoa da. Hortaz, udalak euskara gehiago darabil beste erakundeekin enpresekin baino.

2.2.6. Hizkuntza kudeaketa

Sortze hizkuntza

Langileei galdetu zaie lanean sortzen dituzten testuak - gutunak, ofizioak, dekretuak, txostenak, mezu elektronikoak... - zein hizkuntzatan idazten dituzten.





AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Euskara da udaleko sortze hizkuntza. Hamar langiletatik zazpi testuak euskaraz egiten dituzte. Halere, bik gazteleraz sortzen dituzte.

Hizkuntza irizpideak

Udalak hizkuntza irizpideak Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiaren hizkuntza normalizazioari dagokion VI. tituluan ditu jasota. Araudi hori Udalbatzak 2005eko apirilaren 28an onartu zuen (GAO, 138 zk., 2005eko uztailaren 21a eta II. Eranskina).

Langileen gehiengoak badaki Azkoitiko udalean lana euskaraz egin behar dela. Gehienek hori lortzeko azken urteotan pausuak eman dituzte eta egun lana salbuespenak salbuespen, euskaraz egiten dute naturaltasunez. Hortaz, lanpostuari dagokion hizkuntza irizpideak betetze maila altua dela azaldu dute (%97,70).

Hizkuntza eskakizunak

Udalari dagokion derrigortasun indizea %81,52 da.

Lanpostu guztiak derrigortasun data ezarrita dutenez, udala indize horren benetako aplikaziotik 18,49 puntu goitik dago, %100 delarik.

Indizea osatzerakoan, lanpostu zerrendako lanpostuak hartu dira kontuan eta euskara teknikariak zereginak euskaraz egiten dituzenez, ez da zenbatu.

Hizkuntza eskakizunak (aurrerantzean HE) betetze maila honakoa da (III. Eranskina):

Maila	Langileak	%
Dagokien HE egiaztatu dute	38	64,43
Dagokiena baino HE altuagoren bat egiaztatu dute	14	23,73
Dagokiena baino HE baxuagoren bat egiaztatu dute	2	6,77
Salbuetsiak	4	3,38
Ez du ezer egiaztatu	1	1,69
GUZTIRA	59	100

Hutsik dauden 5 lanpostuak ez dira zenbatu eta salbuetsitako 4 langileetatik, 3k dagokiena baino HE baxuagoren bat egiaztatu du.

Udaleko langile guztien %96,61k egiaztatu du hizkuntza eskakizunen bat, eta era bateko edo besteko gaitasuna du euskaraz lan egiteko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Langileei galdetu zaie euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko duten mailari buruz. Emaitzak honakoak:

	Nahiko ongi	Ongi
Ulertu	--	100
Hitz egin	2	98
Irakurri	11	89
Idatzi	20	80

Ulermen eta mintzamen trebetasunak langileek diote ondo garatuta dituztela. Irakurmenean eta, bereziki, idazmenean kopuruak jaitsi egin badira ere, gehiengoak bere burua ongi mailan kokatu du eta gutxiengoak nahiko ongin, zertxobait, hitz batzuk eta ezer ez mailan ez da erantzunik jaso.

Ordezkarari politikoen hizkuntza gaitasuna

Egun udal korporazioa osatzen duten 17 politikariek euskaraz dakite.

Euskara planak udalean abiatu zirenetik, inoiz ez da horrelako egoerarik ezagutu. Lehen aldia da. Eta eragin nabarmena izan du erabileran, momentuan plenoak, batzorde informatiboak, lan bilerak eta langileen eta zinegotzien arteko ahozko zein idatzizko harremanak nagusiki euskaraz direlako. Gainera, itzulpen eta interpretazio kostua asko murriztu da eta lan horiei eskainitako denbora ere bai, lana egiteko modua arinduz.

Udalean euskararen erabilerak izandako bilakaerari buruzko balorazioa

Bilakaerari buruz jarrera baikorra dute langile gehienek, %88k, ezkorra, berriz, nabarmen gutxiagok, %5ak eta azkenik, %7a erdian dago, ez du jarrera positiboa, ez negatiboa.

Duela 5 urtetik hona, laneko ahozko komunikazioan langileen %24k dio euskara gero eta gehiago darabilela, %69k berdintsu eta %7k gutxiago. Idatzizkoan, aldiz, %44k azaldu du gero eta gehiago erabiltzen duela euskara, %51k antzera eta %4k gutxiago.

Udal langileek euskara plana ondo baloratu dute eta 5 urteotan euskara ahoz eta, bereziki, idatziz gero eta gehiago darabilte. Hortaz, erabilera handitu egin da.



Ondorioak

. Irudia: gaztelera hutsezko elementurik ez dago.

. Herritarrekiko harremanak:

Idatziz: komunikazio ofizialetan %19,10 gaztelaniaz da. Herritarrek euskaraz aurkeztutako idatziei, gaztelera erantzun zaie %3,50etan.

Ahoz: hasierako hizkuntza euskara da.

Udaleko 4 elkarrizketetatik, 3 euskaraz dira. Euskaraz artatuak izan nahi duten herritarren elkarrizketen %99,10a euskaraz da.

. Barne harremanak:

Idatziz: euskaraz nagusiki. Bileretarako dokumentazioa gaztelera dago %6,70an eta idatzi ofizialak eta prozedura administratiboak %6,90a gaztelera egiten dira.

Ahoz: euskara da nagusi.

. Kanpo harremanak:

Erakunde publikoekin: jasotako idatziak euskaraz edo elebitan daude. Udalak bidalitakoak nagusiki euskaraz. Ahoz harremana euskaraz da.

Enpreekin: jasotako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz dira. Udalak bidalitako idatzen laurdena gaztelera da. Ahoz harremana euskaraz da.

Udalak euskara gehiago darabil beste erakundeekin enpreekin baino.

. Sortze hizkuntza: 10 langiletatik 7k testuak euskaraz sortzen dituzte.

. Hizkuntza eskakizunak: langileen %96,61k egiaztatu du hizkuntza eskakizunen bat. Idazmena da gutxien garatutako trebetasuna, baina, %20ak nahiko ongi mailan eta %80ak ongi mailan kokatu dira.

. Politikarien gaitasuna: zinegotzi guztiek euskaraz dakite.

. Erabilera planari buruzko balorazioa: langileen %88k jarrera positiboa du. 5 urteotan euskararen erabilera hazi da, ahoz langileen %24k dio euskara gero eta gehiago darabilela eta idatziz %44k.



3. VI. PLANGINTZALDIKO (2018-2022) PLANA

3.1. Eragin eremua

Planaren eragin eremua udala da.

3.2. Eragin epea

VI. plangintzaldia 2018ko urtarrilaren 1ean hasi da, eta 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

3.3. Helburu nagusia

Udala euskaraz funtzionatzea. Hau da, euskara izatea herritarrekiko zerbitzu hizkuntza, beste administrazioekiko harreman hizkuntza eta udaleko lan hizkuntza.

3.4. Helburu zehatza

V. plangintzaldiko baloraziotik abiatuta, udalean herritarrekiko harremanetan hizkuntza eskubideak %100ean bermatzeaz gain, lan hizkuntzan, euskararen erabilerari buruzko adierazleetan, gutxienez, 15 puntutan gora egitea plangintzaldi amaierarako (horretarako tarteak gelditzen bazaie) eta, edonola ere, udalaren batz besteko hasierako mailaren gainetik jartzea.

Udalaren egitekoa da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea. Hortaz, hizkuntza eskubideak herritarrenak dira, eta udalari dagokio horiek betetzea. Beste era batera esanda: udalak obligazioak ditu eta bere langileak dira administrazioaren betebeharrak gorpuzteko tresna. Beraz, euskara derrigorrezkoa duen lanpostuan ari den langilea prest egongo da bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko naturaltasunez, langileak direlako hizkuntzen artean hautatzeko aukera eskaini behar dutenak. Are gehiago, langileek jardun behar dute udalak onartutako euskara planaren arabera.

3.5. Parte-hartzaileak

Maila	Langileak
Dagokien HE egiaztatu dute	38
Dagokiena baino HE altuagoren bat egiaztatu dute	14
Dagokiena baino HE baxuagoren bat egiaztatu dute	2
Salbuetsiak	3
GUZTIRA	57



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Planetik kanpo daude adinarengatik salbuetsitako langilea eta perfilik egiaztatu ez duena. Lehenak egunotan hartu du erretiroa eta egun lanpostu hori hutsik dago. Hortaz, planetik at 2023an erretiroa hartuko duen langilea baino ez dago. Langile horri plana azaldu eta, planarekiko aldeko jarrera eskatuko zaio, ez eragiteko lankideengan, ezta udalaren euskarazko funtzionamenduan ere. Horrek erretiroa hartzen duenean, belaunaldi aldaketaren ondorioz, espero da lanpostu hori hornituko duenak lanpostuari dagokion hizkuntza gaitasuna izatea.

Egun hutsik dauden 6 lanpostuak (lehendik zeuden 5 gehi erretiroaren ondorioz, egunotan hutsik gelditu dena) bete ahala planean txertatuko dira, igarotako derrigortasun data dutelako.

3.6. Jarraibideak

V. plangintzaldiaren balorazioko datuak dira datozen 5 urteetako planaren abiapuntua eta jarraibide nagusiak honakoak:

- Plangintzaldi amaierako ebaluazioa egiterakoan, helburuen bilakaera ziurtatzeko, oraingo metodologia, galdetegi, adierazle eta irizpide berak erabiliko dira.
- Plangintzaldi amaieran udalaren batz besteko adierazleak ezingo dira izan oraingokoak baino baxuagoak.
- Udalak hizkuntza eskubideak bermatu behar dituzenez, zerbitzu hizkuntzari dagozkion adierazle guztiak %100ean egon behar dira plangintzaldi amaieran.
- Lan hizkuntza adierazleak udalaren oraingo batez besteko datuen gainetik, gutxienez, 15 puntuko goera izatea.

Helburua betetzeko (ikus 3.4. puntua), landuko diren ardatzak, elementuak eta adierazleen aurreikuspena jarraian:

1. Zerbitzu-hizkuntza

Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

1.1. Irudia

Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria eta bestelako identifikagarriak erabilita...).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Ele bietan dagoen jendaurreko errotulazioa eta ikus-entzunezkoak berritu ahala euskara lehenestea, eta hitzak euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, piktogramaz erraz ulertzeko moduan daudenean edota erabilera hedatua dutenenean, (Alkatetza, Komuna, Pleno aretoa...) euskaraz jartzea.

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
---	100	15	85

1.1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea. Eta bi hizkuntzak batera azaltzen direnean, lehentasuna euskarari ematea.

- Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper gauzak

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
28	72	43	57

- Jendaurreko ekitaldiak

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
90,60 (91)	9,40 (9)	100	---

- Herritarrari begira antolatutako ikastaroak eta jarduerak

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
65	7	90	10

1.1.3. Ingurune digitala

Webgunean eta sare sozialetan edukiak egotea euskarari lehentasuna emanez. Hasierako orria edota aurrena zabalduko den albistea euskarazkoa izatea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
25	75	40	60

1.2. Herritarrekiko harremanak

Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.

1.2.1. Idatzizko harremanak

Bermatzea udalak herritarrei bidaltzen dien lehen komunikazioa ele bietan dela eta ez gaztelaniaz. Gainerako kasuetan udalak idatzia zein hizkuntza ofizialetan jaso, hizkuntza horretan emango du erantzuna, interesdunaren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

- Idatzizko harremanak

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
57,60 (58)	23,30 (23)	19,10 (19)	62	38	---

- Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
87,10 (87)	9,40 (9)	3, 5 (4)	100	---	---

1.2.2. Ahozko harremanak

Herritarrekiko harremanetan ahozko lehen hitza euskaraz egitea.

- Harrera

Hasieran (%)	Euskaraz	97,6 (98)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	100
--------------	----------	-----------	---------------------	----------	-----

- Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak

Hasieran (%)	Euskaraz	78,10 (78)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	100
--------------	----------	------------	---------------------	----------	-----

- Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hasieran (%)	Euskaraz	99, 10 (99)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	100
--------------	----------	-------------	---------------------	----------	-----

2. Lan-hizkuntza

Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan, udaleko lan hizkuntza euskara delako.

2.1. Barne harremanak

Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara erabiltzea. Garrantzitsua da langileek euskaraz idatziz eta ahoz aritzea lehen begiradan ikusten eta entzuten den hizkuntza delako udalaren irudia.

2.1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Bulego materialak, paper gauzak (koadernoak, agendak, orri-buruak, fax-orriak, karpetak, gutun-azalak...), kafe-makinak, fotokopiagailuak, etab. euskaraz egotea.

- Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
7	65	28	22	68	10

2.1.2. Barne harremanak idatziz

Idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea. Langileek euskaraz egingo dituzte agiri ofizialak, prozedura administratiboak, bileretarako dokumentazioa eta euren arteko komunikazio informalak. Ezinezkoa denean, udalak bitartekoak jarriko ditu, adibidez, itzulpenak egingo ditu edota langileari lana euskaraz egiteko prestakuntza eskainiko dio.

- Informaziorako edota komunikaziorako tresnak (agiri ofizialak)

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
85,00 (85)	8,10 (8)	6,90 (7)	95	4	---

- Lan bileretako idatziak (bilera agiriak)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
90,00 (90)	3,30 (3)	6,70 (7)	98	1	---

- Erakundearen barne harremanetako idatziak (langileen arteko agiri informalak)

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
96,3 (96)	1 (0,2)	3,5 (3)	99	---	---

2.1.3. Barne harremanak ahoz

Ahozko komunikazioa (lan bilerak, telefonozko harremanak eta langileen eta politikarien arteko harremanak) euskaraz izatea.

- Lan bilerak

Hasieran (%)	Euskaraz	99, 00 (99)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	-------------	---------------------	----------	----

- Telefonozko harremanak

Hasieran (%)	Euskaraz	93, 60 (94)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	-------------	---------------------	----------	----

- Aurrez aurreko harremanak

Hasieran (%)	Euskaraz	98, 90 (99)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	-------------	---------------------	----------	----

2.1.4. Baliabide informatikoak

Euskarri informatikoen euskarazko bertsioen erabilera sustatzea. Ordenagailu berrietan euskarazko bertsioak jartzea lehenetsiko da orain egiten den bezalaxe.

- Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua

Hasieran (%)	Euskaraz	99	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	----	---------------------	----------	----

- Euskarazko bertsioen erabilera

Hasieran (%)	Euskaraz	64,30 (64)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	79
--------------	----------	------------	---------------------	----------	----

2.2. Pertsonen kudeaketa



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.

2.2.1. Pertsonen kudeaketa

Giza baliabideen kudeaketa euskaraz egitea.

- Pertsonen kudeaketa

Hasieran (%)	Euskaraz	97	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	----	---------------------	----------	----

2.2.2. Laneko prestakuntza

Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea. Tokiko langileentzat berriazko euskarazko ikastaroen eskaintza gehitu ahala udalak langileak bultzatuko ditu ikastaro horietara, lana euskaraz egiteko ezinbestekoa delako prestakuntza euskaraz jasotzea.

Langileek euskara maila hobetu nahi badute, euskara ikastaroetara joatea izango dute baldin eta udalak eta HAEE/IVAPEk ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Langileak lana euskaraz egiteko gaitasunik ez badu, nahiz eta lanpostuari dagokion HE izan, udalak neurriak hartuko ditu, besteak beste, idatzi ereduak edota itzulpenak eginez edota jarioa irabazteko mintzalagun programara bideratuz. Langileak borondaterik agertu ezean, udalak bestelako neurriak hartzea izango du, udaleko euskarazko funtzionamendua kaltetua izan ez dadin.

- Laneko prestakuntza

Hasieran (%)	Euskaraz	44,60 (45)	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	60
--------------	----------	------------	---------------------	----------	----

- Ikastaroen kudeaketa

Hasieran (%)	Euskaraz	97	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	----	---------------------	----------	----

2.3. Kanpo harremanak

Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan. Idatziz bermatu behar da udalak komunikazioak euskaraz ala ele bietan egitea, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanez. Ahoz solaskideak euskara menperatu ezean, eskatu behar da solaskide euskalduna, ondorengo elkarrizketa euskaraz izateko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bileretan zalantzazko egoerak saihesteko, langileak ala politikariak hasieran galdetu du bilera zein hizkuntzatan egingo den eta bertaratutakoen artean adostuko da bilera hizkuntza.

2.3.1. Administrazioa (Erakunde publikoen arteko harremanak)

Herri administrazioekiko harremanak euskaraz izatea.

- Administrazioekiko idatzizko harremanak

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
78,60 (79)	8,20 (8)	13,20 (13)	81	18	---

- Administrazioekiko ahozko harremanak

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz	Gaztelaniaz
91,7 (92)	8,30 (8)	99	---

**2.3.2. Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak...
(Enpresekiko harremanak)**

Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.

- Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
68,40 (68)	6,60 (7)	25,00 (25)	81	19	---

- Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak

Hasieran (%)		Aurreikusitakoa (%)	
Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz	Gaztelaniaz
84,50 (85)	15,50 (15)	99	---

2.3.3. Bestelako harremanak

Euskararen erabilera areagotzea gainerako harremanetan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Beste entitateekiko idatzizko harremanak

Hasieran (%)	Euskaraz	80	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	95
--------------	----------	----	---------------------	----------	----

- Beste entitateekiko ahozko harremanak

Hasieran (%)	Euskaraz	85	Aurreikusitakoa (%)	Euskaraz	99
--------------	----------	----	---------------------	----------	----

2.4. Kudeaketa sistema

Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.

ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea.

Euskararen kudeaketa udalaren kudeaketa orokorrean txertatzea.

- Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-%100)

Hasieran (%)	60	Aurreikusitakoa (%)	75
--------------	----	---------------------	----

- Udalaren kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-%100)

Hasieran (%)	75	Aurreikusitakoa (%)	90
--------------	----	---------------------	----

- Sortze hizkuntza

Hasieran (%)			Aurreikusitakoa (%)		
Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz
74,40 (74)	5,40 (5)	20,10 (20)	89	---	11

Sortzen diren dokumentuetatik %20a gaztelaniaz sortu da. Langileek lana euskaraz egitea helburua bada, gaitasuna duten langileek idatziak euskaraz egin behar dituzte. Idatzi horiek ele bietan ala gaztelaniaz behar izanez gero, horiek itzultzeko bitartekoak jartzea udalari dagokio, langileak itzultzaileak ez direlako. Hortaz, datozen urteotako erronka da udal langileek gero eta gehiago laneko agiriak euskaraz egitea.

- Dokumentuen estandarizazioa (0-%100)

Hasieran (%)	55	Aurreikusitakoa (%)	70
--------------	----	---------------------	----

2. 4. 1. HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Udalaren zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.

- Hizkuntza irizpideak betetze maila (0-%100)

Hasieran (%)	73,5 (73)	Aurreikusitakoa (%)	88
--------------	-----------	---------------------	----

2. 4. 2. PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.

Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.

- Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak

Hasieran (%) 5 lanpostu hutsik	93	Aurreikusitakoa (%)	99
-----------------------------------	----	---------------------	----

Lanpostu zerrendako lanpostuak hornitzeko ala ordezkatzeko HE egiaztatuta duten langileak kontratuko dira. Horretarako, aurretik euskara zerbitzuari lanpostuari dagokion HE eta derrigortasun datari buruzko informazioa eskatuko zaio.

Langile berriren batek egoera bereziren baten ondorioz, lanpostuari dagokion HE egiaztatzeke badu, udalak hori lehenbailehen ateratzea eskatuko dio eta helburua lortzeko aukerak eta aholkuak eskainiko dizkio.

Lanpostu zerrendan lanpostu berria sortuz gero, euskara zerbitzuak horri dagokion HE eta derrigortasun data proposatuz, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari eskatuko dio proposamenari buruzko txostena egitea. Txosten hori izatea derrigorrezkoa da HE eta derrigortasun data ezartzeko udalbatzak edozein erabaki hartu aurretik.

Lanpostu zerrendatik kanpoko lanpostuak hornitzekorakoan ala ordezkatzekoan, ahalegina egingo da lanpostuari dagokion HE duen langileak hartzeko.

- Udal ordezkarien hizkuntza gaitasuna

Hasieran (%)	100	Aurreikusitakoa (%)	100
--------------	-----	---------------------	-----

Udal korporazioa osatzen duten politikarien gaitasunak eragin handia eta nabarmena du euskara planaren bilakaeran. Hortaz, egungo egoerak txarrera egin dezake, 2019ko maiatzeko hauteskundeak eta gero, zinegotziren bat badago, euskaraz ez dakiena.

- Langileen eta udal ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko

Hasieran (%)	88,1 (88)	Aurreikusitakoa (%)	99
--------------	-----------	---------------------	----



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Langileen eta udal ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan

Hasieran (%)	37,2 (37)	Aurreikusitakoa (%)	52
--------------	-----------	---------------------	----

3.7. Kudeaketa eta jarraipena

Planak arrakasta izateko ezinbestekoa da eragingo dituen langileak bere baitan hartzea. Horregatik, plana langileen ordezkari, atalburuei eta langileei aurkeztuko zaie. Jarraipena, berriz, langileen ordezkariekin eta atalburuekin egingo da. Politikariekin ere bai.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

I. ERANSKINA: V. plangintzaldiaren (2013-2017) balorazioa

1. Ardatza

Zerbitzu hizkuntza

1. Erakundearen irudia

1.1. ERROTULAZIOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Maiztasunak	Maiztasunak	Euskaraz	Ele bietan	
1.1.1.1. Eraikinetako errotulazio orokorra	1.1				000	100	000
1.2. ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA, ALBISTEAK ETA JENDAUURREKO EKITALDIAK	Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Maiztasunak	Maiztasunak	Euskaraz	Ele bietan	
1.2.1.1. Irudi korporatiboko elementuak	1.2				000	100	000
1.2.2. Erakundearen beraren papereko argitalpenak	1.3				085	015	000
							kontzejupetik / Andramarixetako jai egitaraua / Ludotekako hileroko egitaraua / Udazblai eskuorria / Kiroldegiko eskaintza esku-orria
1.2.3. Iragarriak eta publizitatea	1.4				000	100	000
1.2.4. Erakundeari buruzko albisteak	1.5						
1.2.5. a Jendaurreko ekitaldiak (Harremanaren maiztasuna)	4.4	<u>G4 3</u>	Kodea	Kopurua	%		
			2	2	4,4		
			3	3	6,7		
			4	4	8,9		
			5	6	13,3		
			6	30	66,7		
				45	100		
1.2.5. b Jendaurreko ekitaldiak (Erabilitako Hizkuntza)		<u>G4 4</u>	Kodea	Kopurua	%		90,6
			7	2	12,5		
			8	2	12,5		
			9	5	31,3		
			10	7	43,8		
				16	100		

1.3. INGURUNE DIGITALA

- 1.3.1. Webguneak eta zerbitzu telematikoak
- 1.3.2. Sare sozialak eta aplikazio digitalak

Galdetegia	Maiztasunak		Adierazlea			Oharrak
	Erakundea	Langilea	Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	
1.6			025	075	000	
1.7						

1. Ardatza

Zerbitzu hizkuntza

2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harremanak

2.1. BEZERO EDO HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK	Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Kodea	Kopurua	Ele bietan	Gaztelaniaz	
2.1.1. Herritarrek erakundera bidalitako idatziak eta aurkeztutako idatzizko eskaerak	6.2	G6_1			53,2	4,6	41,9
			Kodea	Kopurua			%
			1	20			44,4
			2	8			17,8
			4	1			2,2
			5	2			4,4
			6	14			31,1
				45			100
2.1.2. Erakundeak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazio ofizialak	6.4	G6_3			57,6	23,3	19,1
			Kodea	Kopurua			%
			1	17			37,8
			2	5			11,1
			3	4			8,9
			4	1			2,2
			6	18			40,0
				45			100
2.1.3. Azken hamabi hilabeteetan herritarrek erakundearen aurkeztutako eskaerak	2.1.b						
2.1.4. Herritarrek euskaraz egindako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza	6.5				87,1	9,4	3,5
2.1.5. Azken hamabi hilabeteetan herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza.	2.2.b						
2.2. BEZERO EDO HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK	Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Kodea	Kopurua	Ele bietan	Gaztelaniaz	
2.2.1.a Telefono bidezko herritarren harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza (Harremanaren maiztasuna)	1.2	G1_1					
			Kodea	Kopurua			%
			1	32			72,7
			2	4			9,1
			3	1			2,3

2.2.1.b Telefono bidezko herritarren harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza (Erabilitako hizkuntza)

1.2 G1_2 98,8

Kodea	Kopurua	%
8	2	5,0
9	1	2,5
10	37	92,5
	40	100

4	2	2,3
5	1	1,1
6	4	4,5
	44	100

2.2.2.a Herritarren aurrez aurreko harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza (Harremanaren maiztasuna)

3.2 G3_1 96,4

Kodea	Kopurua	%
1	37	82,2
2	5	11,1
3	2	4,4
4	1	2,2
	45	100

2.2.2.b Herritarren aurrez aurreko harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza (Erabilitako hizkuntza)

3.2 G3_2 75,3

Kodea	Kopurua	%
5	1	2,2
7	1	2,2
8	2	4,4
9	4	8,9
10	37	82,2
	45	100

2.2.3. Herritarrek erakundearekin komunikatzerakoan telefonoz erabilitako hasierako hizkuntza

1.3 G1_3 74,7

Kodea	Kopurua	%
3	1	2,5
5	3	7,5
6	2	5,0
7	14	35,0
8	12	30,0
9	3	7,5
10	5	12,5
	40	100

2.2.4. Herritarrekiko aurrez aurreko harremanetan, herritarrek erabilitako hasierako hizkuntza

3.3 G3_3 74,7

Kodea	Kopurua	%
3	2	4,4
4	1	2,2
5	3	6,7
6	1	2,2
7	16	35,6
8	11	24,4
9	5	11,1
10	6	13,3

2.2.5. Elkarriketa osotasunean hartuta, telefono bidezko herritarrekiko komunikazioetako hizkuntza

2.1

G2.1

Kodea	Kopurua	%
3	1	2,5
5	3	7,5
6	1	2,5
7	10	25,0
8	10	25,0
9	10	25,0
10	5	12,5
	40	100

78,5

2.2.6. Elkarriketa osotasunean hartuta, herritarrekiko aurrez aurreko komunikazioetako hizkuntza

4.1

G4.1

Kodea	Kopurua	%
5	7	15,9
7	10	22,7
8	12	27,3
9	9	20,5
10	6	13,6
	44	100

77,7

2.2.7. Herritarren ahozko euskarazko eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza

4.2

G4.2

Kodea	Kopurua	%
9	4	8,9
10	41	91,1
	45	100

99,1

2. Ardatza Lan hizkuntza

3. Barne komunikazio eta lan tresnak

3.1. IDATZIKO BARNE KOMUNIKAZIOA	Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Kodea	Kopurua	Emaitza (%)	Emaitza (%)	
3.1.1. Lan bileretako dokumentu idatziak (bilerak ote dituen eta dokumentuetan erabiltako hizkuntza)	7.8.	G7.7					
			Kodea	Kopurua	%	Euskaraz	Gaztelaniaz
			1	15	33,3	90,0	6,7
			2	30	66,7	3,3	
				45	100		
3.1.2. Barneko idazki ofizial eta prozedura administratiiboetarako erabiltako hizkuntza (idazten ote dituen eta horietan erabiltako hizkuntza)	7.4.	G7.3					
			Kodea	Kopurua	%		
			1	21	47,7	85,0	6,9
			2	23	52,3	8,1	
				44	100		
3.1.3. Langile arteko idatziko komunikazio ez formaletako hizkuntza (idazten ote duen eta erabiltako hizkuntza)	7.6.	G7.5					
			Kodea	Kopurua	%		
			1	28	62,2	96,3	3,5
			2	17	37,8	0,2	
				45	100		
3.1.4. Erakunde barruko prozedura administratiiboaren azken hamabi hilabeteetan erabiltako hizkuntza	3.1.b						
3.1.5. Herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako prozedura administratiiboak kudeatzeko azken hamabi hilabeteetan erabiltako hizkuntza	3.2.b						
3.2. AHOZKO BARNE KOMUNIKAZIOA	Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Kodea	Kopurua	Emaitza (%)	Emaitza (%)	
3.2.1. Lan bileretako ahozko harremanetarako hizkuntza	5.2	G5.2					
			Kodea	Kopurua	%		
			9	4	8,9	99,0	
			10	38	84,4		
			99	3	6,7		
				45	100		

3.2.2. Langile arteko ahozko harremanetarako hizkuntza

93,6

5.1

G5_1

Kodea	Kopurua	%
5	1	2,2
6	1	2,2
7	1	2,2
8	4	8,9
9	9	20,0
10	29	64,4
	45	100

3.2.3. Langile eta ordezkari politikoaren arteko ahozko harremanetako hizkuntza

98,9

5.3

G5_3

Kodea	Kopurua	%
8	1	2,2
9	3	6,7
10	40	88,9
99	1	2,2
	45	100

3.3. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Galdetgia	Maiztasunak		Adierazlea	
	Erakundea	Langilea	Eraitza (%)	Oharrak
3.3			00	Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostuak
				050

3.3.1. Euskarazko programa eta aplikazio informatikoak instalatuta dauden lanpostuak (%)

3.3.2. Euskarazko programa eta aplikazio informatikoen erabilera

64,3

8.1

G8_1

Kodea	Kopurua	%
1	1	2,2
2	7	15,6
3	6	13,3
4	13	28,9
5	8	17,8
6	10	22,2
	45	100

2. Ardatza

Lan hizkuntza

4. Pertsonen kudeaketa

4.1. LANEKO PRESTAKUNTZA

Galdetgia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak	
Erakundea	Langilea				Eraitza (%)		

4.1.1. Erakundeak bultzatuta azken hamabi hilabeteetan langile bakoitzak parte hartutako lan prestakuntzarako saio edo ikastaro kopuruaren batez bestekoa

G8.2

8.2	Kodea	Kopurua	%
	1	31	68,9
	2	3	6,7
	3	5	11,1
	4	6	13,3
		45	100

0,8

4.1.2. Azken hamabi hilabeteetan euskaraz egiteko aukera eskainitako lan prestakuntzarako saio edo ikastaroen ehunekoa

G8.3

8.3	Kodea	Kopurua	%
	1	4	28,6
	2	4	28,6
	4	3	21,4
	5	2	14,3
	6	1	7,1
		14	100

40,4

4.1.3. Azken hamabi hilabeteetan langileek parte hartutako erakunde beraren prestakuntza ikastaroetako hizkuntza

G8.4

8.4	Kodea	Kopurua	%
	1	4	28,6
	2	3	21,4
	4	6	42,9
	5	1	7,1
		14	100

44,6

5.2.2. Azken hamabi hilabeteetan erakundearentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetatik jasotako idatzietako hizkuntza 4.2.d

G7_15			
7.16	Kodea	Kopurua	%
1.	16	16	35,6
2	29	29	64,4
		45	100
		68,4	6,6
			25,0

5.2.3. Erakundeak, berretzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetara bidalitako idatzietako hizkuntza

5.2.4. Erakundeak, azken hamabi hilabeteetan berretzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetara bidalitako idatzietako hizkuntza. 4.2.b

030	065		005

5.2.5. Erakundearentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuekiko ahozko harremanetarako hizkuntza

G5_5			
5.5	Kodea	Kopurua	%
5	2	2	4,4
6.	3	3	6,7
7	6	6	13,3
8	6	6	13,3
9	10	10	22,2
10	13	13	28,9
99	5	5	11,1
		45	100
		84,5	

2. Ardatza

Lan hizkuntza

6. Erakundearen hizkuntza kudeaketa

6.1 SORTZE HIZKUNTZA	Galdetegia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak	
	Erakundea	Langilea	Erakundea	Langilea	Euskaraz	Ele bietan		
6.1.1.1. Idatziko lanaren sortze hizkuntza	7.2	<u>G7.1</u>	Kodea	Kopurua	%	74,4	5,4	20,1
			0	1	2,2			
			1	41	91,1			
			2	3	6,7			
			45	100	100			

6.2 HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	Galdetegia		Maiztasunak		Adierazlea		Oharrak
	Erakundea	Langilea	Erakundea	Langilea	Bai	Ez	
6.2.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideen ezarpena	5.6				1		

6.2.2. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza	<u>G9.1</u>	Kodea		Kopurua	%	Emitza (%)
		1	6			
		2	27	61,4		
		3	10	22,7		
		4	1	2,3		
		44	100	100		

6.2.3. Erakundearen HOEiren betetze maila	5.7	3,0 <th rowspan="2">97,7</th>	97,7
6.2.4. Lanpostuen HOEiren betetze maila			

6.2.4. Lanpostuen HOEiren betetze maila	<u>G9.2</u>	Kodea		Kopurua	%
		1	28		
		2	15	34,1	
		4	1	2,3	
		44	100	100	

6.2.5. Erakundeari dagokion derrigortasun indizea (%) 5.1 84,0

6.3 HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK	Galdetegia		Maiztasunak	Lanpostuak HEri jarraikiz (%)	Dagokiona edo altuagoa egiaztatuta (%)
	Erakundea	Langilea			

6.3.1. Lanpostu kopurua Hizkuntza Eskakizunari jarraiki	5.2				
6.3.2. Dagokion HE edo altuagoa egiaztatutako lanpostuak	5.3				
6.3.3. Lanpostuak hizkuntza eskakizunari jarraikiz	10.1				
6.3.4. Lanpostuak egiaztatutako maila altueneko hizkuntza eskakizunari jarraikiz	10.2				
6.3.5. Derrigortasun data igarota eduki eta hizkuntza eskakizuna egiaztatutako gabe dagoen lanpostuen ehunekoa	5.4				
6.3.6 Derrigortasun data duten lanpostuak	10.3				
6.3.7 Derrigortasun data igarota dutenak	10.4				

Kodea	Kopurua	%	Kodea	Kopurua	%
1	8	19,0	1	1	2,4
2	7	16,7	2	8	19,0
3	21	50,0	3	29	69,0
4	4	9,5	4	4	9,5
5	2	4,8	42	42	100
	42	100			

Eraitza (%) Oharrak

5,0

Eraitza (%) Oharrak

G10_3		Eraitza (%)		Oharrak	
Bai (%)	Ez (%)	Kodea	Kopurua	%	
	Zehaztu gabe (%)	1	16	38,1	
		2	1	2,4	
		3	25	59,5	
		42	42	100	

G10_4		Eraitza (%)		Oharrak	
Bai (%)	Ez (%)	Kodea	Kopurua	%	
	Zehaztu gabe (%)	1	15	35,7	
		3	27	64,3	

6.4
LANGILEEN SOSLAI LINGUISTIKOA
ETA LANPOSTUEN FUNTZIO LINGUISTIKOA

Galdetegia
 Erakundea Langilea

Maiztasunak

Adierazlea
 Emaita (%)

Oharrak

6.4.1. Erakundeko langileen euskara gaitasuna

10.7. Hitz egin / 10.7. Idatzi

G10 7 Ujertu

Kodea	Kopurua	%
5	45	100,0
45	45	100

Hitz egiteko gai 100,0
 Idazteko gai 100,0

G10 7 Irakurri

Kodea	Kopurua	%
4	5	11,1
5	40	88,9
45	45	100

G10 7 Hitz egin

Kodea	Kopurua	%
4	1	2,2
5	44	97,8
45	45	100

G10 7 Idatzi

Kodea	Kopurua	%
4	9	20,0
5	36	80,0
45	45	100

6.4.2. Lanpostuen funtzio linguistikoa (lanpostuen hizkuntza izaera)

10.5

Emaita (%)

G10 5

Jendaurrera	Kodea	Kopurua	%
Gizarte mailakoa	1	6	14,3
Atal orokorra	2	1	2,4
Atal berezia	3	15	35,7
Zehaztu gabe	4	12	28,6
Guztira	5	8	19,0
		42	100

6.4.3. Lanpostuen hizkuntza helburua

10.6

G10 6

Elebiduna	Kodea	Kopurua	%
Euskarazkoa	2	21	50,0
Zehaztu gabe	3	21	50,0
Guztira			

6.5 ORDEZKARI POLITIKOEN SOSIAL LINGUISTIKOA	Galdetgia	Adierazlea	Oharrak
	Erakundea Langilea	Maiztasunak Emaita (%)	Oharrak

Ulertzeko gai Hitz egiteko gai

17,0 17

017

5.5

6.5.1. Erakundeko ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna

6.6 LANGILEEN BALORAZIOAK EUSKARAREN BILAKAERAREKIKO	Galdetgia	Maiztasunak	Oharrak
	Erakundea Langilea	Ulertzeko gai	Oharrak

37,2

9.3 G9.3

6.6.1. Erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenen parte hartzea

Kodea	Kopurua	%
1	2	4,7
2	14	32,6
3	10	23,3
4	12	27,9
5	1	2,3
6	4	9,3
	43	100

6.7 LANGILEEN BALORAZIOAK EUSKARAREN BILAKAERAREKIKO	Galdetgia	Adierazlea	Oharrak
	Erakundea Langilea	Maiztasunak Emaita (%)	Oharrak

Positiboa Negatiboa

10.8 G10.8

6.7.1. Erakundean euskararen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa

Kodea	Kopurua	%
1	1	2,4
2	1	2,4
3	3	7,1
4	30	71,4
5	7	16,7
	42	100

Dena euskaraz egiten delako /
Administrazioan denok
euskaraz zuzentzen garelako
eta lan denak euskaraz egiten
ditugulako / Lan hikuntza
euskaraz da udaletxean nahiz
eta bakoitzak bere euskara
erabili batuaren ordezkari / Herri
euskaletza da eta euskaraz
egiten dugun lan / Lana
euskaraz egiteko aukera
dagoelako / Lankideen artean

88,1 4,8

gazteleraz gero eta gutxiago hitz egiten da eta euskarazko idatziak gero-eta gehiago erabiltzen dira / Euskara gehiago erabiltzen da maila formalean / Idatzizko guztia euskaraz egiten da, eta idatzizkoaren %90 baino gehiago ere baietz esango nuke / Hiztegi laborral tekniko asko oraindik gaztelaniaz burutzen dugu / kontu-hartzailetza / Euskaraz lehen baino gehiago egiten delako / Euskara maila oso pobrea eta ahula erabiltzen delako, ez delako batere sustatzen hizkuntza kalitatea eta baliabide nahikoa jartzen langileen eskura egoera aldatzeko / Gero eta gehiago lana egiteko tresnak euskaraz ditugulako

Geror eta gehiago	Geror eta gutxiago	Oharrak
24,4	6,7	
44,4	4,44	

6.7.2. Duela bost urtetik hona, laneko ahozko komunikazioetan euskarak izan duen bilakaera

9.4. Ahoz	G9.4. Ahoz	Kodea	Kopurua	%
	1	3	3	6,7
	2	11	11	24,4
	3	31	31	68,9
		45	45	100

6.7.3. Duela bost urtetik hona, laneko idatzizko komunikazioetan euskarak izan duen bilakaera

9.4. Idatziz	G9.4. Idatziz	Kodea	Kopurua	%
	1	2	2	4,4
	2	20	20	44,4
	3	23	23	51,1
		45	45	100

	Galdetegia		Maiztasunak	Azalpenak
	Erakundea	Langilea		
6.8.1. Plangintzaldiko lorpenik garrantzitsuenak	5.8.a			Lana euskaraz egitea normaltasunez atal guztietan salbuespenak salbuespen. Politikari guztien gaitasunari esker itzulpen kostua eta horri eskainitako denbora murriztu da lana bizkortuz, arinduz.
6.8.2. Plangintzaldiko hutsunerik garrantzitsuenak	5.8.b			Trebakuntzarik ez izatea. Langileen gaitasuna eguneratuta izateko baliabiderik ez izatea.
6.8.3. Hurrengo plangintzaldirako erronkak	5.8.c			Egungo idazkaria badoa, datorrenak izango duen gaitasuna, borondatea eta gogoa lana euskaraz egiteko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

II. ERANŞKINA: Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiaren VI. titulua Hizkuntza Normalizazioarena (Udaleko hizkuntza irizpideak).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

AZKOITIKO UDALA

***Azkoitiko Udalaren Jardunbide
Araudia***

**VI. TITULUA.- HIZKUNTZ
NORMALIZAZIOARENA**

47. artikulua.- *Euskararen ofizialtasuna eta erabilera.*

1. Euskara eta gaztelania dira Azkoitiko Udalaren hizkuntza ofizialak. Indarrean diren lege eta gainerako arauetara jarraiki eta Jardunbide Araudi honetako xedapenen arabera erabiliko du euskara Azkoitiko Udalak, hala bere barne-funtzionamenduan nola herritarrekin zein gainerako organismo eta erakunde guztiekin izango dituen harremanetan.

2.- Herritarrek harremanak euskaraz izateko duten eskubidea bermatzeko, Azkoitiko Udalak bere eskumeneko esparru guztietan bai zerbitzu hizkuntza moduan bai laneko hizkuntza moduan euskararen erabilera normalizatzeko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

3.- Jardunbide Araudi honen ondorioetarako, lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan administratuekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean, harremanotan erabiltzen den hizkuntza, horixe da zerbitzu-hizkuntza. Era berean, lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan bertan erabiltzen

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

***Reglamento Orgánico Municipal
del Ayuntamiento de Azkoitia***

**TITULO VI. DE LA
NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA**

Artículo 47. *Oficialidad y uso del euskera.*

1. El euskera y el castellano son las lenguas oficiales del Ayuntamiento de Azkoitia. El Ayuntamiento de Azkoitia utilizará el euskera con arreglo a las leyes y demás normas vigentes, y de acuerdo con las disposiciones del presente Reglamento Orgánico, tanto en su funcionamiento interno como en sus relaciones con los ciudadanos y demás organismos e Instituciones.

2. Con objeto de garantizar el derecho de los ciudadanos a relacionarse en euskera, el Ayuntamiento de Azkoitia adoptará las medidas oportunas para la normalización del uso del euskera, ya como lengua de servicio ya como lengua de trabajo, en los diferentes ámbitos de su competencia.

3. Se entiende a los efectos de este Reglamento por lengua de servicio aquella en que se desempeñan las funciones inherentes a un puesto de trabajo cuando las mismas se concretan en una relación oral o escrita con el administrado. A los mismos efectos, se entiende lengua de trabajo aquella en la que se desempeñan las



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

den hizkuntza, horixe izango da lan-hizkuntza.

4.- Azkoitiko Udalak beren zerbitzuan diharduten langileek hizkuntz gaitasun egokia lor dezaten saiatuko dira, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz.

5.- Azkoitiko Udalaren lanpostuak eskuratu eta haietan jarduteko euskararen ezagutza maila balorazioa eta, hala balegokio, eskakizuna Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutako baldintza eta moduetan egingo da.

48. artikulua.- Lehentasunezko tratamendua.

